

MEMORIA

2018/2019 IKASTURTEA

www.mondragon.edu



ERREKTOREAREN AGURRA

Unibertsitate kooperatiboa da Mondragon Unibertsitatea, irabazi-asmorik gabea, onura publikokoa eta, beraz, gizarte osoari irekia. MONDRAGON Korporazioan dago, eta, haren balio eta printzipio berak izanik, gizarte bidezkoago eta jasangarriago bat eraikitzen saiatzen den eragile aktiboa da.

Pertsonen osoko hezkuntzaren bidez eta ezagutza sortuz eta transferituz gizartea eraldatzea da Mondragon Unibertsitatearen funtsezko helburua. Eraldaketa horrek giza garapen iraunkorreko eredu bat bultzatzen du, non pertsona den gure ekintzaren muina eta ardatza. Eta horretarako, unibertsitate praktikoa, berritzailea eta bere inguruarekin konprometitua eraiki dugu, pertsonen garapena ardatz duena, enpresaren eta gizartearen beharretara bideratuta dagoena, mundu errealeko erronkei aurre egiteko pentsatua dagoen unibertsitatea, non ezagutzak eta horren aplikazioak ez duten mugarik.

Ikasturtearen memoria aukera egokia izan ohi da goi-mailako hezkuntzarekiko konpromisoa berresteko, zinez garrantzizkoa baita. Honela gauzatzen du konpromiso hori Mondragon Unibertsitateak: gazteak eta profesionalak trebatuz, ezagutza sortuz eta, ondoren, ezagutza hori enpresa eta erakundeetara hedatuz.

Irakasle bakoitzaren eta administrazio eta zerbitzuetako langile bakoitzaren eguneroko lanean islatzen da konpromisoa fakultate guztietan.

Etengabeko lana da, eta haren emaitza egunero jasotzen dute gure ikasleek. Gugan jarri duten konfiantza itzuli egin behar diegu, bizitzako sasoi hau erabakigarria dutelako beraien etorkizunerako eta, batez ere, gure herriaren geroa haien eskuetan dagoelako.

2018-2019 ikasturteak gure hausnarketa estrategikoaren lerroak jarraitu ditu. Plan horrekin, unibertsitateko hezkuntza-berrikuntzan liderrak izatea, estatuko eta nazioarteko merkatu berrietara irekitzea eta gure ikerkuntzak enpresetan eta gizartearen duen inpaktua maximizatzea nahi dugu.

Erronka horiek bat datoz gure jatorriarekin, gure egoerarekin, gure filosofiarekin eta, batez ere, gure berezitasunarekin. MONDRAGON izena aurrean eramateak enpresara hurbiltzen gaitu, eta gure kooperatiba-oinarria adierazten du. Gizarte- eta enpresa-ehun lehiakorra eta iraunkorra garatu eta horri eustea xede duen oinarria.

Eusko Jaurlaritzako Lehendakari Iñigo Urkullu Rementeriak Mondragon Unibertsitatearen 2019-2020 ikasturtearen hasierako ekitaldiko hitzaldian nabarmendu zuen bezala, honako ideia kooperatibo hau dugu:

"Ikuspegi humanista eta bokazio soziala, pertsona jardueraren erdigunean jartzen duena; prestakuntza-ereduaren orientazio praktikoa, kooperatibekiko eta enpresekiko harreman iraunkorra, "Learning

by doing" izpiritua duena; ikerketarekiko eta transferentziarekiko konpromisoa, hobetzeko grinarekin. Ideia hori gazteriarekiko konpromisoa da, eta gazterientzako berarentzako konpromisoa".

Ez dugu zalantzarik. Horixe da bidea, Euskadi etorkizunean herrialde lehiakorra eta aurreratua izateko. Herrialde batek, lehiakorra izango bada, enpresa lehiakorrak behar ditu, eta, horretarako, ezinbestekoak dira gazte eta profesional lehiakorrak: ezagutzak, balioak eta gaitasunak dituzten gazteak eta profesionalak, alegia.

Eta, horretarako, erronka nagusia da **unibertsitateko hezkuntza-berrikuntza gidatzetik** benetan unibertsitate-hezkuntza eraldatzea helburu duen unibertsitatea izatera pasatzea, eta bere ekintza eta eraginagatik goi-mailako prestakuntzaren aldatetaren eta hobekuntzaren eragile izatea. Ziur gaudelako hobetzeko aukera dugula, ikaskuntza maximizatu behar dugula, eta esperientzia aberasgarria eraiki behar dugula Mondragon Unibertsitateetik igarotzen diren pertsona guztiengan, ikasle nahiz profesionalengan. Esperientzia horrek bereizten gaitu unibertsitate gisa, gure printzipio eta balio kooperatiboengatik, gure ikuspegi praktikoagatik, enpresari itsatsita, lankidetzan lan egiteagatik, eta berrikuntzarekin, prestakuntzarekin eta giza garapen iraunkorarekin dugun konpromisoagatik, bereziki gure herriarena, Euskal Herriarena, baina begirada orokor batekin.

Begirada globala, 2018-2019 ikasturtean zehar 5 kontinenteetan hainbat modutan garatu ditugun jardueretan islatua, baina, aldi berean, gure ahalegina gure ingurune hurbilean eragina izatera bideratuz; izan ere, mundu mailako U-Multirank rankineko seigarren unibertsitatea izan gara, Regional Engagment-inpaktua ingurunean atalean.





Joan den 2018-2019 ikasturteko emaitzek gure erronken eta unibertsitate-ereduaren balioa finkatu dute. Ikasturtean zehar erakutsi dugu liderrak garela hezkuntza-berrikuntzan eta prestakuntza dualean, bai estatuan eta bai Euskadin. 2018-2019 ikasturtean 5.125 ikasle izan dituzte gure titulazio ofizialek, eta horien laurdenak aukera izan du ikasketa-amaierako proiektua enpresetan eta erakundeetan egiteko; 1.210 ikaslek, berriz, atzerrira jo dute ikasketak osatzera.

Hirugarren erronka **gure ikerkuntzak enpresetan eta gizartearen duen inpaktua maximizatzea** da, gizarte- eta enpresa-ehun lehiakorra eta iraunkorra garatu eta euste aldera. Xede horrekin, prestakuntza, ikerkuntza eta transferentzia uztartzen ditugu, jarduera horiek guztiak enpresen eta erakundeen lehiarako posizioa hobetzera bideratzeko asmoz. Ildo horretan, profesionalak trebatzeko arloa jorratu dugu, baita Ikerketa eta Transferentziako jarduerak ere.

Profesionalentzako prestakuntzari dagokionez, 7.000 lagunek baino gehiagok jarri dute konfiantza Mondragon Unibertsitatean beraien prestakuntza eta kapazitatea hobetzeko asmotan.

Bestalde, gure Ikerketa eta Transferentzia atalaren jarduera %10ean hazi da 2018-2019 ikasturtean, eta eutsi egin zaio alor publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren ereduari. Hala, enpresatik hurbilen dauden gure fakultateetan, I+T (Ikerketa eta Transferentzia) atalean ematen den inbertsio pribatua %50 baino gehiago da. Bistakoa da, beraz, gure enpresa-ehunaren lehiakortasuna hobetzeko egiten dugun ahalegina.



Aurrerantzean ere, gure herriaren geroa gidatuko duten gizon-emakumeak ondo prestatzea izango da gure ardura nagusia. Ardura horrek, gainera, epe labur, ertain eta luzera begiratzen du, eta, beharbada, gizartearen etorkizuneko premiei erreparatu eta erantzuteko dugun ohiturari esker etortzen zaizkigu enpresa eta erakunde asko eta asko gurekin elkarlanean aritzera. Lankidetzaz horri esker, bestela ezinezkoa litzazigukeen hazkundea eta garapena ari gara lortzen. Garapen horren adierazgarri dira, Euskal Herrian 9 campusetan ditugu egoitzak: Arrasaten, Oñatin, Eskoriatzan, Ordizian, Irunen, Donostian, Hernanin, Aretxabaletan eta Bilbon; laborategi gisa ari gara, berriz, beste 5 kokapenetan: Madrilen, Valentzian, Bartzelonan, Txinan eta, MEIrekin lankidetzan, baita Mexikon ere (Querétaron).

AURKIBIDEA

| | |
|---|-----------|
| 1. HISTORIA PIXKA BAT | 7 |
| 2. TXOSTEN AKADEMIKOA | 9 |
| 3. IKERKETA ETA GARAPENA | 14 |
| 4. BERRIKUNTZA ETA EKINTZAIETZA | 17 |
| 5. GIZARTEAREKIN KONPROMISOA | 19 |
| 6. UNIBERTSITATEA-ENPRESA HARREMANA | 20 |
| 7. ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK | 21 |
| 8. ATXIKITAKO IKERKETA ZENTROAK | 22 |
| 9. DATU EKONOMIKO AIPAGARRIAK | 24 |
| 10. ORGANO SOZIALAK ETA ZUZENDARITZAKOAK | 26 |



HISTORIA PIXKA BAT

Mondragon Unibertsitatea unibertsitate gazteada, 1997an sortua eta irakaskuntzan eskarmentu handiko eta ibilbide luzeko hiru hezkuntza-kooperatibak bultzatua: Mondragon Goi Eskola Politeknikoa 'Jose M. Arizmendiarieta' Koop. Elkartea, ETEO Koop. Elkartea eta Irakasle Eskola Koop. Elkartea.

1943an hasi zen lanean **Goi Eskola Politeknikoa**, aita Jose Maria Arizmendiarietak –Arrasateko kooperatiben sustatzaileak– bultzatuta. Gizarte garapenerako mugimendu bat abiarazi zuen ikastetxe hark: gazteen trebakuntza oinarri hartuta, enpresa sorrera bultzatu zuen, lankidetzaren bidez betiere.

Goi Eskola Politeknikoaren ingeniariaritzaren ikerketa teknologikoko jarduerak, industria ingeniariaritzaren eta IKT, ekoingeniariaritzaren eta osasunaren alorretan banatzen dira.

Gaur egun, 3 campus ditu Gipuzkoan: jatorrizkoa Arrasaten, 2001ean Ordizian irekitakoa eta 2013/14an Donostialdean -Orona Ideon- irekitakoa.

Enpresagintza Fakultatea, lehen ETEO Koop. Elkartea zena, 1960an hasi zen lanean Oñatin, aita Jose M. Arizmendiarietak bultzatutako gazte-talde baten ekimenez.

Administrazio eta enpresa alorretako trebakuntza ematea izan du eginkizun nagusia fakultate horrek, batez ere enpresen kudeaketa, administrazio eta zuzendaritza arloetan. Gainera, azken urteotan,

ekintzailetasuna fakultate honetako ikerketa eta formazio programen oinarritzako lerroa bihurtu da.

Bi campus ditu Gipuzkoan: jatorrizkoa Oñatin eta 2003ko apirilean Irunen inauguratu zen Bidasoaldekoa. Era berean, eta zehazki ekintzailetasunaren arloan, Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntzako graduan 8 laborategi dauzka; Oñati eta Iruneoaz gain, Bilbo, Madril, Bartzelona, Valentzia, Shanghai eta Queretaroko laborategiak.

1978an sortu zen, Eskoriatzan, Irakasle Eskola, gaur egun **Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultate** bihurtua. Irakaskuntzarako profesionalak prestatzea zuen hasieran helburu baina ikus-entzunezko komunikazioaren ezagutza arloarekin hedatzen joan da. Azken honek bere eraikin propioa du 2012-13 ikasturteetik aurrera, fakultateak Aretxabaletan 2013ko maiatzean inauguratu zuen campus berrian.

2010ean Mondragon Unibertsitateko **Gastronomia Zientzien Fakultatea – Basque Culinary Center** gehitu zen Donostian eta gaur egun, munduan aitzindaria den erakunde akademiko bat da. Bertan, Gastronomia eta Sukaldaritza arteen Gradua eta

Gastronomia Zientzietan Unibertsitate Masterra eskaintzen dira eta helburu nagusiak, goi-mailako prestakuntza ematea, ikertzea, eta gastronomia eta elikadura berritzea eta sustatzea dira.

Gainera, 2013-2014 ikasturtetik, unibertsitateak Bilbon du kokapen berri bat, **BBF (Bilbao Berrikuntza Faktoria)**, non, Berrikuntza eta Ekintzailetasunaren inguruko eskaintza dagoen.

2018-2019 ikasturtean, eta 6 urteko ibilbidearen ostean, 6 enpresa kontsolidatu, 26 start up, 260 ikasle-ekintzaile eta 80 ekintzaile biltzen ditu BBFk. Guztira ia 600 lagun ari dira lanean Bilbon kokatuta dagoen campus horretan eta era beran, 5 clusterrek ere bertan daukate beraien egoitza. Bestalde, ikasturte honetan zehar, BBFn antolatutako ekitaldi eta bisitak 200 baino gehiago izan dira. Gainera, aurtien eraikinaren solairu berri bat egokitu da fintech ekintzailetasunean espezializatutako gune bat sortzeko, non, 40 ekintzaile inguruk egiten duten lan.

Bestalde, zenbait enpresa eta erakunde laguntzaile ere baditu Mondragon Unibertsitateak. Azpimarratzekoak dira ikerketa teknologikoaren alorrekoak diren Ikerlan eta Ideko; biak ere izen handikoak nazioartean eta ezinbestekoak Unibertsitatearen antolakuntza-sisteman.

Era berean, MONDRAGON Korporazioaren laguntza ere badu unibertsitateak, talde horretako kide baita, eta Ulma Taldea Koop. Elkartearena, Gizabidea Fundazioarena eta Debagoieneko Mankomunitatearena, Unibertsitatearen bazkide laguntzaileak baitira guztiak.



TXOSTEN AKADEMIKOA

Gaur egun Mondragon Unibertsitateak duen formazio eskaintza lau multzotan bana dezakegu. Alde batetik, Graduoko eskaintza, Batxilergotik eta Goi Mailako Heziketa Zikloetatik datozen gazteei zuzendutakoa; bestetik, Unibertsitate Masterren eskaintza, gradua bukatu ondoren, espezializazio bila dabiltzan pertsoneri zuzendutakoa; hirugarrenik, doktorego eskaintza, ikerketan interesatuentzat eta bukatzeko, profesionalentzako prestakuntza.

2018-2019 ikasturtean aipatu beharreko hainbat gai garrantzitsu izan dira. Graduoko titulazio berri bat eskaintzen hasi gara, Business Data Analytics Gradua, Bilboko campusean. Eta Industria Diseinuko eta Produktu Garapenerako Ingeniaritza eta Industria Antolakuntzako Ingeniaritza Graduek EUR-ACE zigilua lortu dute.

GRADUOKO ESKAINTZA

2018-2019 ikasturtean, 16 Graduoko titulazio eskaini ditu, bere 6 ezagutza arloetan: ingeniaritza, enpresa kudeaketa, ekintzailetasuna, komunikazioa, hezkuntza eta gastronomia.

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

- ✿ Mekanikako Ingeniaritza (EUR-ACE) - DUALA.
- ✿ Industria Diseinuko eta Produktu Garapenerako Ingeniaritza (EUR-ACE) - DUALA.
- ✿ Industria Antolakuntzako Ingeniaritza (EUR-ACE) - DUALA.
- ✿ Industria Elektronikako Ingeniaritza - DUALA.
- ✿ Informatikako Ingeniaritza - DUALA.
- ✿ Energiaren Ingeniaritza - DUALA.
- ✿ Prozesu Industrialetako Ekoteknologien Ingeniaritza - DUALA.

- ✿ Ingeniaritza Biomedikoa - DUALA.
- ✿ Ingeniaritza Mekatronikoa - DUALA.

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

- ✿ Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza (MyGADE) - DUALA.
- ✿ Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza (LEINN).
- ✿ Bussines Data Analytics (BdA).

HUMANITATE ETA HEZKUNTZAZIENTZIEN FAKULTATEA

- ✿ Ikus-Entzunezko Komunikazioa.
- ✿ Haur Hezkuntza.
- ✿ Lehen Hezkuntza.

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA

- ✿ Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak.

UNIBERTSITATE MASTERREN ESKAINTZA

Europako Goi Mailako Hezkuntzako Esparruan ezarritako unibertsitate-sistema berriarekin aldatu egin zen graduondoko ikasketen eredua, eta horrek ekarri zuen berrikuntza nagusietako bat da



Unibertsitate Masterra, Graduaren eta Doktoregoaren arteko hezkuntza maila.

Espezializatutako prestakuntza da, diziplinarteko ikuspegia duena. Espezializazio profesionala edo akademikoa erdiestea, atribuzio profesionalak lortzea edo ikerketa-lanbideari ekitea ditu helburu doktoregorako sarreraren bidez.

Mondragon Unibertsitateko Unibertsitate Masterren bidez ikasleek prestakuntzan aurrera egiten dute, eta gaur egun enpresa eta erakundeek eskatzen dituzten jardueretan edo jakintza eremuetan espezializatzen dira. Gainera, Europar Batasuneko herrialde guztietan balioa duen titulu ofiziala eskuratzen dute, alderdi akademikoan edota lanekoan ere beste edozein herrialdetan onargarri dena.

Unibertsitate Masterrek lan-merkatura bideratutako espezializazioa eskaintzen dute, gorantz doazen eta estrategikoak diren sektoreetan eta ezagutza arloetan, hain zuzen. Ikasketok, gainera, nazioarteko ikuspegia eta arrakasta duten lanbideekiko eta enpresekiko lotura sakona dute eta etorkizuneko ateak irekiko dizkiete ikasleei.

Unibertsitate masterren esparruan, 15 titulazio eskaini dira, hauetatik 3 diploma bikoitz bezala. Azken hauek, Frantziako unibertsitateekin eta ingeniartzaren alorrean eskaini dira.

GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK

- ✦ Diploma bikoitza (aukera): Industria Ingeniaritza Unibertsitate Masterra (INSA Toulouse / ECN Nantes) - DUALA.
- ✦ Diploma bikoitza (aukera): Sistema Txertatuak Unibertsitate Masterra (INSA Toulouse / ENSEEIHT Toulouse) - DUALA.
- ✦ Diploma bikoitza (aukera): Energia eta Potentzia Elektronika Unibertsitate Masterra (ENSEEIHT Toulouse) - DUALA.
- ✦ Enpresa Berrikuntza eta Proiektu Zuzendaritza Unibertsitate Masterra.
- ✦ Produktu eta Zerbitzuen Diseinu Estrategikoa Unibertsitate Masterra - DUALA.
- ✦ Teknologia Biomedikoak Unibertsitate Masterra - DUALA.

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

- ✦ Kontabilitate eta Finantza Zuzendaritza Unibertsitate Masterra.

- ☀️ Gizarte Ekonomia eta Enpresa Kooperatiboa Unibertsitate Masterra (ONLINE).
- ☀️ Marketin Digitala Unibertsitate Masterra.
- ☀️ Erakundeen Nazioartekotzea Unibertsitate Masterra.
- ☀️ Pertsonen Talentuaren Kudeaketa Estrategikoa Unibertsitate Masterra.

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

- ☀️ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen Unibertsitate Masterra.
- ☀️ Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan Unibertsitate Masterra (EKOMU) (ONLINE).
- ☀️ Berrikuntza Didaktiko Metodologikoko Proiektuen Grapena eta Kudeaketa Hezkuntza Erakundeetan Unibertsitate Masterra (BERRIMET) (ONLINE).

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA – BASQUE CULINARY CENTER

- ☀️ Gastronomia Zientzietan Unibertsitate Masterra.

DOKTOREGOIA

Ikerketaren munduan interesa duen pertsona orok, Mondragon Unibertsitatean, ingeniaritza, kudeaketa eta hezkuntzarekin zerikusia duten hiru doktorego programatan parte har dezake.

- ☀️ Mekanika eta Energia Elektrikoko Ingeniaritza Doktorego Programa.
- ☀️ Erakundeen Kudeaketa Aurreratua eta Gizarte Ekonomia Doktorego Programa.
- ☀️ Berrikuntza eta Esku-Hartzea Hezkuntzan Doktorego Programa.

PROFESIONALENTZAKO PRESTAKUNTZA

Urtez urte, Profesionalentzako Prestakuntza esparrua ere garatuz jarraitzen dugu eta gaur egun profesionalentzako eskaintzan zerbitzu integral bat emateko gai gara, ikastaro presentzial, online eta erdipresentziala modalitateko ikastaro eta In Company formazioarekin. Profesionalak posible du ikastaro laburretatik hasi eta gradu bat, gradura egokitzapen ikastaro edo master bat egitea. Gainera, kontuan izan behar dugu online proiektuak izan duen garapenak lagundu duela eskaintza hau borobiltzen, lanean dagoen profesionalari ikastea, bizitza pertsonala eta aldi berean lan egitea ahalbidetuz.

2018-2019ko ikasturtean, zehazki, profesionalei zuzendutako ondorengoak eskaini dira: 5 unibertsitate master (horietatik 3 online), 17 master profesional, 3 espezializazio diploma, 11 aditu titulu, 2 gradu (online), gradurako 3 egokitzapen ikastaro (online), bai eta hainbat ikastaro labur, bai presentzialak eta online modalitatean, ardoaren marketina, diseinu industriala, elektronikoa eta energia, enpresa eta erakundeen zuzendaritza eta kudeaketa, estrategia, ekintzailetasuna eta berrikuntza, gastronomia eta sukaldaritza arteak, hezkuntza, industria antolakuntza eta kudeaketa, informatika, telekomunikazio sistemak eta sistema txertatuak, ingeniaritza mekanikoa eta fabrikazio prozesuak, komunikazioa, kontabilitatea eta finantzak, kooperatibagintza eta gizarte ekonomia, kudeaketa eta berrikuntza jatetxeetan, kultura eta gizarte, lidergoa eta pertsonen kudeaketa, marketina eta salmentak, proiektuen zuzendaritza eta kudeaketa arloetan.

Gainera, Mondragon Unibertsitateko Profesionalentzako Prestakuntzak jasotzen ditu gradura egokitzapen ikastaroak, aditu tituluak, espezializazio diplomak eta ikastaro laburrak.

Arlo honetan eskainitako ikastaroetan, oro har 6.700 ikasle izan ditugu 2018-2019ko ikasturtean.

PROFESIONALENTZAKO PRESTAKUNTZAKO ESKAINTZA

UNIBERTSITATE MASTERRAK

- ✿ Berrikuntza Didaktiko eta Metodologikoko Proiektuen Garapena eta Kudeaketa Hezkuntza Erakundeetan Unibertsitate Masterra (Online).
- ✿ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen Unibertsitate Masterra.
- ✿ Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan Unibertsitate Masterra (Online).
- ✿ Enpresen Berrikuntza eta Proiektu Zuzendaritza Unibertsitate Masterra (Online).
- ✿ Gastronomia Zientziak Unibertsitate Masterra.

MASTER PROFESIONALAK

- ✿ MBA – Executive.
- ✿ Coaching Master Profesionala.
- ✿ Fabrikazio Gehigarri Industrialeko Masterra.
- ✿ Intraekintzailtza eta Berrikuntza Kolaboratiboan Nazioarteko Masterra.
- ✿ Ekoizpen Zuzendaritzan Master Profesionala.
- ✿ Logistika Osoan eta Erosketetan Executive Masterra. Supply Chain Management.
- ✿ Jatetxeak Berritu eta Kudeatzeko Master Profesionala.
- ✿ Jatetxeetako Gozogintzan eta Sukaldaritza Gozoan Masterra.
- ✿ Sukaldaritzan hobetzeko Masterra.
- ✿ Sumileria eta Enomarketinga Master Profesionala.
- ✿ Turismo Gastronomian Masterra.
- ✿ Team Mastery-Program for Team Coaches.
- ✿ Industria Automatizazioan Masterra.



- ☀ Mugikortasun Elektrikoan eta Energiaren Bilketan Master Profesionala.
- ☀ Sorkuntzako, Teknikako eta Produktuko Sukaldaritza Masterra.
- ☀ F & B Zuzendaritza Masterra.
- ☀ Zibersegurtasunean Masterra.

ESPEZIALIZAZIO DIPLOMAK

- ☀ Marketing Digitaleko Espezializazio Diploma.
- ☀ Berrikuntza Didaktiko Metodologikoko Proiektuen Garapena eta Kudeaketa Hezkuntza Erakundeetan Espezializazio Diploma.
- ☀ Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan Espezializazio Diploma.

ADITU TITULUAK

- ☀ Kooperatibagintzan Aditu Titulua.
- ☀ Euskal kulturgintzaren transmisioko Aditu Titulua.
- ☀ Ekintzailletza Sozial Kooperatiboa eta Ekonomia Soziala Aditu Titulua.
- ☀ Tabernaritzan eta Koktelegintza Modernoan Aditu Titulua.
- ☀ Jangelako Zuzendaritzan eta Bezeroen Arretan Aditu Titulua.
- ☀ Proiektu Kudeaketan Aditu Ikastaroa.
- ☀ Pertsona eta Taldeen Lidertza Aditu Ikastaroa.
- ☀ Zerbituzazioan aditu titulua.
- ☀ Kirol berrikuntzan aditua.
- ☀ Hizkuntzak biziberritzeko estrategiak aditu titulua.
- ☀ Experto en dirección de compras.

GRADUAK

- ☀ Haur Hezkuntza Gradua (Online).
- ☀ Lehen Hezkuntza (Online).

GRADURA EGOKITZAPEN IKASTAROAK

- ☀ Irakasleentzako Gradurako Egokitze Kurtsoak.
- ☀ Ingeniaritza Mekanikoko Gradura Egokitze Ikastaroa (Online).
- ☀ Industria Elektronikako Ingeniaritza Gradura Egokitze Ikastaroa (Online).

MATRIKULATUTAKO IKASLEAK

2018-19 ikasturtean Mondragon Unibertsitatean ikasketa ofizialetan matrikulatutako ikasle kopuru totala 5.125 izan da:

- 4.360 ikaslek, graduoko unibertsitate ikasketak egin dituzte.
- 765 ikaslek, graduondoko ikasketa ofizialak egin dituzte, unibertsitate masterrak nahiz doktoretza.

Gainera, 547 ikaslek graduondoko titulo propioetako ikasketak egin dituzte.

Ikasketa ofizialetan matrikulatutako ikasle kopuruaren bilakaera:

| | |
|----------------|--------------|
| 2012-13 | 4.021 |
| 2013-14 | 4.260 |
| 2014-15 | 4.296 |
| 2015-16 | 4.226 |
| 2016-17 | 4.689 |
| 2017-18 | 4.804 |
| 2018-19 | 5.125 |

IKERKETA ETA GARAPENA

Goi Eskola Politeknikoan, I+T jardueratik datozen diru-sarrerek %10 egin dute gora. Enprekin epe luzerako lankidetzako ikerketa-programak finkatzea arrakastatsua dela erakusten du bilakaera horrek. Programa horien barruan ikerketa-proiektuak lantzen dira, eta produktu, prozesu eta zerbitzu berritzaileak izaten dira horien emaitza. Era berean, enpresan lan egingo duten gazteen trebakuntza jorratzen da lankidetzak-ikerketako programa horietan. Hala, doktorego-tesi gehienak esparru horren barruan finantzatzen dira.

Proiektu lehiakorrei dagokionez, bereziki nabarmendu daitezke Elkartek, H2020 eta Gipuzkoako Foru Aldundiko deialdietan parte hartu dutenak, non, emaitzak oso onak izan diren.

Euskadiko Espezializazio Adimenduaren Estrategian (RIS3) funtsezkoak diren Garraioaren, Manufaktura Aurreratuaren eta 4.0 Industriaren eremuetako proiektuak dira, eta horrelakoei esker, ezagutza sortzen jarraitu ahal izango dugu enpresen beharrek bat datozen arlo zientifiko eta teknologikoetan.

Era berean, azpimarratzekoa da Goi Eskola Politeknikoarentzat mugari garrantzitsu bat izan dena, alegia, DIMAND proiektua lideratu izana. Proiektu honek MARIE SKŁODOWSKA-CURIE INNOVATIVE TRAINING NETWORKS deialdian parte hartzen du. Bikaintasun zientifiko eta berrikuntza lortzeko ekimena da, eta unibertsitateek, ikerketa-zentroek eta nazioarteko beste eragile batzuek parte hartzen dute ikertzaileak doktorego-mailan prestatzen. Gainera,

doktoratu aurreko ikertzaileen esperientzia industrialia eta nazioartekoa ere sustatzen da.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatean, diziplinarteko ikerketa- eta transferentzia-proiektuen aldeko apustu sakona egin da 2018/2019 ikasturtean. Horrela, Gizarte, Hezkuntza eta Kooperatibismoa eremuetan hurrengoak azpimarratuko genituzke:

Alde batetik, Hezkuntza berrikuntzaren alorrean, Haur Hezkuntzatik hasi eta Lanbide Heziketara, 27 transferentzia ekimen garatu dira esparru ezberdinetan eraginez (kulturartekotasuna, alfabetizazio anitzak, ikaskuntza-sakona, digitalizazioa eta berrikuntza-metodologikoa besteak beste). Ikerketa-proiektuei dagokienez, nabarmentzekoa da digitalizazioaren inguruan egindako lana; horren adibide dugu Etorkizuna Eraikiz markoan, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Wikipediarekin batera egindako lana.

Bestetik, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babespean garatutako hainbat ikerketa-proiektu ere aipa litezke. Hala nola, ikasleen hizkuntza erabilera eta identitatea neurtzeko ikerketa-proiektua, Kooperatibetan pertsonen talentua eta lurraldearekiko konpromisoa aztertzeko lana, Talentu kooperatiboa garatzeko ikaskuntza eta ahalduzko prozesuen inguruko ikerketa, Pertsonen parte-hartzean oinarritutako gobernantza kooperatiboaren markoa eta langileen zein ikasleen profil kooperatiboa aztertzea helburu duten ikerketa-lanak.



Aipatutakoez gain, hezkuntza eta hausnarketa kooperatiboa bultzatzeko norabidean, hainbat ekintza bideratu dira MONDRAGONeko kooperatibetan ikasturte honetan.

Enpresagintza Fakultatearen esparruan, honako jarduera hauek nabarmendu behar dira: as Fabrik proiektu estrategikoaren inguruan, ekintzailtza- eta barne-ekintzailtza 25 proiektu baino gehiagorekin lan egin da, eta, horretarako, tresna arinak garatu dira industriara bideratutako zerbitzu aurreratu digitalen esparruan balio-proposamen berriak sortzeko. Aldi berean, ikerketa-ildo berri bat abiarazi da negozio-eredu digital berrien finantzaketaren inguruan, bereziki zerbitzazioaren kasuan.

Era berean, Fakultateak datuaren inguruko ikerketa eta transferentziaren alde egindako apustuari jarraituz, aurten lehen aldiz lagundu zaio erakunde bati baliabide garrantzitsu horren erabilera

estrategikoari buruzko hausnarketan, bai eta kide batzuek kudeaketaren paradigma berri horretara bideratutako reskillingean ere.

Ikasturte akademiko honetan, halaber, hainbat enprekiko harreman garrantzitsuak sendotu dira, ondorengo arloetan: organizazio-ikaskuntzako prozesuen diseinua bai eta talentuaren kudeaketa estrategikoan (esaterako, enpleguaren esperientzian) gai berriak aztertzean ere.

Azkenik, aliantza adimendunekin lotutako proiektuak sendotu dira, nazioartekotzera eta bezero-esperientzia bereziagoa garatzera bideratutako estrategia lehiakorren motor gisa.

BCC Innovation-en ikerketa-jarduerak bi lan-ildo nagusi biltzen ditu: "gastronomia eta osasuna" eta "gastronomia eta iraunkortasuna", eta bertan kokatzen dira joan den ikasturtean garatutako ikerketa proiektu

guztiak. Besta2016an abiarazitako BCulinary Lab ekimenak indarrean jarraitzen du, jatetxeetarako eta elikagaien alorrerako aplikazio gastronomiko berriak identifikatu eta beraien inguruko ezagutza sortzeko xedez. Era berean, balio gastronomiko handiko produktu berrien garapenera bideratutako enprekin garatutako proiektuak zentruaren zutabe izaten jarraitzen dute.

Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Etorbizuna Eraikiz ekimenaren esparruan, living lab baten garapen eta ezarpena aipatu beharra dago. Berrikuntzaren, teknologiaren eta jatetxe-arloaren inguruan esperimintatzeko eta elkarlaneko sorkuntzarako gunea da eta 2019ko ekainean inauguratu da.

Etorbizuna Eraikiz egitasmoaren testuinguruan baitan, unibertsitateko 3 fakultatek elkarlanean langileek enpresetan duten parte hartzeari buruzko behatokia diseinatu dute eta Gipuzkoan langileek duten partaidetza horri buruzko diagnostikoa egin dute. Zehazki, partaidetza horrek langileen ongizatean, lurralde-garapenean eta enpresen emaitza ekonomikoetan dituen ondorioak aztertzea da ikerketaren helburua.

Gainera, euskal unibertsitate-sistemaren baitan, Eusko Jaurlaritzak ziurtatutako 11 Ikerketa-talde izan ditu Unibertsitateak, aurreko deialdian baino 2 gehiago, horietako 8, A taldekoak gainera.

Bikaintasun zientifikoaren harira, nabarmendu behar da baita pasa den ikasturtean Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziarekin sinatutako hitzarmena, gure ikerlarien ikerketa jarduera aitortzeko. Lehen deialdian, ebaluatutako ikerlarien arrakasta-tasa %90etik gorakoa izan da.

Azkenik, 2018-19an egindako ikerketa-proiektuak eta transferentzia-jarduerak 569 izan dira, aurreko ikasturtean baino %4 gehiago. Gainera, 119 artikulua argitaratu dira aldizkari espezializatuetan (iaz baino

%20 gehiago) eta 126 txosten aurkeztu dira Estatuko zein nazioarteko biltzarretan (%18ko hazkunde). Bestalde, hainbat jakintza-eremuri buruzko 121 jardunaldi eta biltzar antolatu ditu Unibertsitateak (%48ko hazkunde).

BERRIKUNTZA ETA EKINTZAILETZA

Berrikuntza eta ekintzailletza esparruetan ere, hainbat egitasmo eta proiektu martxan jarri eta garatu ditu unibertsitateak.

Horren adibide dira, esaterako, Mondragon Unibertsitateko hezkuntza ereduaren Mendeberrri 2025 berrikuntza prozesuan emandako aurrerapausuak.

Besteak beste, birmoldatuko diren 5 graduen hasierako diseinuak garatu dira. Era berean, ERAGIN ikerketa proiektuari esker, Mondragon Unibertsitateko ikasleen 3 ezaugarri pertsonalei buruzko informazioa jasotzen hasi da unibertsitatea, hala nola ikasleen izaera kooperatiboa, ekintzailea eta sortzailea neurtzen hasi da, ikaste prozesuak ezaugarri horien garapenean duen eragina neurtzeko asmoz.

Bestalde, ekintzailletasuna eta diziplinartekotasuna lantzeko iazko ikasturtean Changemaker Lab programa jarri du abian. Guztira, 6 gradu ezberdinetako ikasleek parte hartu dute ekintzailletasun egitasmo honetan.

Eta ekintzailletasunaren esparruarekin jarraituz, zehazki LEINN-Lidergo ekintzailea eta berrikuntza graduan, ikasleek irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan lehenengo ikasturtean sortutako enpresez gain, 2018-19 ikasturtean beste 7 enpresa sortu dituzte aurreko promozioetako ikasle izandakoek. Orain arte 29 enpresa sortu dira, guztira 100 langile baino

gehiagorekin. Gainera, Enpresagintza Fakultateak ekintzailletasunari bideratutako Intraekintzailletza eta Berrikuntza Irekiko Nazioarteko Master Exekutiboa eskaintzen jarraitzen du.

Era berean, Enpresagintza Fakultateak dituen ekintzailletzako laborategien sare zabalari esker, 2018-19 ikasturtean zehar 695 ikaslek egin dute LEINN gradua.

Goi Eskola Politeknikoan ere ekintzailletasunari lotuta hainbat ekimen garatu dira, besteak beste, BREAKit proiektu Europarra, non lehengaien sektoreko profesionalak trebatu diren, IMAGO proiektuaren hirugarren edizioa, negozio ereduaren indarberritzea eta eraldaketa aztertzea helburu duena, etab.

Honez gain, Saiolan Enpresa eta Berrikuntza zentroarekin eta Mondragon Korporazioarekin martxan jarritako "Enpresa Sortu" lehiaketaren laugarren edizioa burutu da.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak bestalde, Olatukoop eta EHU GEZKIrekin elkarlanean eta GFArekin laguntzarekin, "Kooperatiba Fabrika" programaren 3.edizioa gauzatu du, ekintzailletza sozial kooperatiboa eta ekonomia soziala sustatzeko helburua duena. Guztira 37 ekimen ekonomiko kontsolidatu dira eta 62 lagunek egiten dute lan gaur egun enpresa horietan.



Basque Culinary Centerren ekintzaileen VI. Nazioarteko foroa antolatu da, startups-en 3 lehiaketa jarri dira martxan eta CAction azeleratzailearen 6. edizioa antolatu da, 7 startup berriei laguntza eskainiz.

Azkenik, eta Eusko Jaurlaritzaren Gazte Ekintzailetza programari esker, 12 proiektuk -28 ikasleren parte hartzearekin- ekintzailetza beka bat jasotzeko aukera izan dute.



GIZARTEAREKIN KONPROMISOA

Unibertsitateak Gizartearekiko duen konpromisoaren testuinguruan, euskararen, genero berdintasunaren eta enpleguaren sustapena dira, besteak beste, Mondragon Unibertsitatean modu esanguratsuan lantzen dituen hiru arlo.

Euskararen sustapenari dagokionean, Mondragon Unibertsitateak konpromisu irmoa erakutsi izan du betik. Horren adierazgarri da, besteak beste, bere eskaintza formatibo ezaugarritzen duen hezkuntza eredu hirueleduna. Horretaz gain, euskararen normalizazioa lan munduan ere suspertzeko unibertsitateak ahalegin nabarmena egiten jarraitzen du. Horren adibide dira, besteak beste, gure ikasleek enpresa eta erakundeetan egiten dituzten ikasketa amaierako proiektuak euskaraz egiteko unibertsitateak MONDRAGONekin antolatzen duen saria, ikasturte honetan 9. edizioa izanik. Gainera, hainbat dira 2018-19 ikasturtean zehar ere euskararen sustapenerako fakultateetan bideratu izan diren ekimenak eta beste kanpo eragile batzuk elkarlanean burututakoak (Euskaraldia, Gipuzkoa Berdinago, Jendaurrean Erabili, Euskaragileak, Euskara Eztabaida Txapelketa interunibertsitarioa, etab.).

Berdintasunaren eremuari dagokionean, Unibertsitateak urte hauetan agertu duen sentsibilitatearekin eta lanarekin bat etorritz, Mondragon Unibertsitateak Europako beste 9 erakunderekin batera 2015-16an garatzen hasi eta 4

urteko iraupena duen PLOTINA europar proiektua azpimarratu daiteke. Goi-mailako hezkuntzan, ikerkuntzan eta berrikuntzan genero-oreka sustatzea da proiektu horren helburu nagusia.

Era berean, ikasturte honetan garatutako ondorengo ekimenak nabarmendu daitezke: komunikazio inklusiboari eta kontratazio ez-sexistari buruzko formazio saioak, sexu jazarpenaren kontrako protokoloaren diseinua, hainbat testu eta araudiren egokitzapena hizkuntza inklusiboaren ikuspegitik, etab. Gainera, genero ikuspegia txertatzen hasi gara ikerketan eta curriculumean.

Bestalde, eta hirugarren urtez, Mondragon Unibertsitateak Eusko Jaurlaritzak martxan jarritako Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen 2017-20rako Planean ere parte hartu du.

Azkenik, eta enpleguaren sustapenari dagokionean, 2018-2019 ikasturtean Unibertsitateak LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin duen lankidetzaren testuinguruan, lanerako orientazio eta enplegu agentzia zerbitzua eskaintzen jarraitu du, 700 ikasletik gora hartatuz. Testuinguru honetan, azpimiarragarria da Mondragon Unibertsitateko ikasle-ohien laneratze tasen bilakaera positiboa; 2019an egindako ikerketaren arabera, 2018-19an ikasketak bukatu zituzten graduiko ikasleen enplegu tasa %93koa da eta masterren kasuan %96koa.

UNIBERTSITATEA- EMPRESA HARREMANA

Prestakuntza akademikoa-prestakuntza praktikoa binomioaren garapena Mondragon Unibertsitateak inguruko enpresa-ehunarekin duen harreman zuzenaren fruitu da eta unibertsitatearen ezaugarri nagusienetakoa izan da hasieratik.

Harreman hori hainbat baliabideren bidez gauzatzen da:

- Unibertsitateak eta enpresek elkarrekin egiten dituzte ikerketa-proiektuak; aurten 230 enpresa baino gehiagorekin.
- Enpresek unibertsitatearen kudeaketa organoetan parte hartzen dute.
- Unibertsitateak etengabeko prestakuntza eskaintzen die birziklatu eta ezagutza/gaitasunak eguneratu beharra daukaten profesionalak.

Ikasturte honetan zehar 7.000tik gora izan dira Mondragon Unibertsitatean prestatutako profesionalak.

- Ikasleek enpresa eta ikastetxeetan egiten dituzte praktikak eta ikasketa bukaerako proiektuak eta ikasketak eta lana txandakatzeko aukera daukate.

Enpresekiko harreman estu honi esker, unibertsitateak berehala eta etengabe jakiten du zer premia eta eskari dituzten eta era berean eredu honek enprekin harremanetan jartzeko aukera ematen die ikasleei ere, unibertsitateko ikasketetan zehar lan-munduari buruzko ezagutza praktikokoak eta errealak bereganatu ditzaten.

2018-2019 ikasturtean 1.075 ikasle izan dira titulazio amaierako proiektua egin dutenak eta 1.064 ikaslek egin dituzte praktikak enpresa eta erakunde ezberdinetan. Egun erdiz ere lan egiteko aukera eskaintzen zaie, ikasketak eta lana uztartuz.

Beste alde batetik, 174 ikaslek hartu dute parte Eusko Jaurlaritzaren "Hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa" programan, lan-esperientziaren bidez gazteen enplegarritasuna handitzeko helburua duena.

ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK

KIROL-ZERBITZUAREN JARDUERAK

Mondragon Unibertsitatearen kirol-zerbitzuak lau fakultateetara eta horien campusetara bideratutako ikasturteko jarduera-programa koordinatzen du, eta gainera, bere ardurapean daude unibertsitatearen lehiaketa-arloa, jarduera osagarriena, eta proiektu berriei eta zerbitzuaren etengabeko hobekuntzari dagokiona.

Ikasturte honetan burututako ekintza hauek aipa daitezke:

- Unibertsitate osasungarriaren arloan, leku-aldaketa jasagarriak sustatzeko jarduerak eta bilerak egin dira campusetan. Bestalde, azken urteotan bezala, jarduera batzuk antolatu dira Osasunaren Mundu Egunaren astean zehar, non 500 lagunek hartu duten parte. Bizikletak doan mailegatzeko pilotu bat ere jarri dute martxan gure campusetako hainbatetan.
- MUK unibertsitate-kirolari buruzko jardunaldietan parte hartu eta bilerak egin ditu estatuko eta nazioarteko unibertsitateetako arduradunekin. Bertan hainbat gai izan dituzte hizpide, hala nola, estatu mailan unibertsitate-kirolak duen egoera eta etorkizuna.
- Unibertsitateko ikasleek beren egunerokotasunean egiten duten jarduera fisikoaren berri izateko, IPAQ galdetegi estandarizatua egin zaie ikasturte hasieran

lehen mailako ikasle guztiei, eta oso datu onak lortu dira ikasturteko lehen aste hauetan aztertutako kolektiboetan.

Guztira 1.194 ikaslek, 127 langilek, 16 MUKidek, 47 ikasle ohik eta unibertsitateko jendearen 56 senidek edo lagunek 2.854 inskripzio baino gehiago egin dituzte jardueretan. Ikasle parte-hartzaileen %62 baino gehiagok bere fakultatea edo Mondragon Unibertsitatea ordezkatu du txapelketetan eta ikasle eta langileen %15 inguruk osasuna sustatzeko ekintzetan, irteeretan, kirol-ikastaroetan eta abarretan hartu du parte. Horrez gain, gero eta jende gehiagok praktikatzen du jarduera fisikoren bat bere kabuz, kirol-zerbitzuaren aholkularitzapean.

KULTURAKO ETA AISIAKO BESTE JARDUERA BATZUK

Mondragon Unibertsitateak daukan kirol zerbitzuko jarduera eskaintzaz gain, fakultate bakoitzak kultura eta aisiako jarduerak antolatzen ditu, ikasle, irakasle eta herritar ororentzat.

ATXIKITAKO IKERKETA ZENTROAK

IKERLAN

IKERLAN MONDRAGON Korporazioaren erreferente historikoa da teknologia-ikeruntzaren eta horren aplikazioaren eremuan. Auek dira bere espezializazio-eremuak: elektronikaren, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, potentzia-energia eta -elektronika eta fabrikazio aurreratua.

Ikerlanen helburu nagusia ezagutza teknologikoa gure enpresetara transferitzea da, eta enpresei beren bilakaera teknologikoen prozesuan laguntzea. Ikerlanek harreman estua du EAEko enprekin, eta, lankidetzaren ondorioz, 13 milioi euro fakturatu zituen I+Gn (diru-sarrera guztien% 57) 2018an. Ikerketa-proiektuak barne, guztira 22,8 milioi euro fakturatu ziren.

Bestalde, 2018an, Espezializazio Teknologikoko Plana finkatu da, zentro teknologikoen Plan Estrategikoan zehaztutako espezializazio-eremuetan sakonduz.

Beste erakunde batzuekiko aliantzen eta lankidetzaren esparruan, azpimarragarria da, besteak beste, Mondragon Unibertsitatearekin duen lankidetzaren estrategikoa.

Zentroaren lehentasunetako bat ikertzaileen trebakuntza izaki, 2018an milioi bat eurotik gorako inbertsioa bideratu da arlo horretara. Guztira, aldi horretan, 45 doktore-tesi landu dira eta 40 ikasle sartu dira trebatzeko.

IDEKO

IDEKO sendotu egin da eta erreferentziakoa da fabrikazioaren edo manufacturingaren arloan Estatu mailan, eta, alor jakin batzuetan, baita nazioartean ere Ikerketaren emaitzak merkatura transferitzera bideratutako antolaketa-eredua du, eta horrela, I+G+B zikloa osatzen du.

*Advance Manufacturing*ean espezializatuta dago, eta ikerketa-proiektuetan nahiz industriaren eskaerari erantzunez gauzatzen du jarduna, lau ikerketa-ildoren inguruan: fabrikazio-prozesuak, dinamika eta kontrola, diseinua eta doitasunezko ingeniariak, eta IKTak eta automatizazioa. Espezializazio-estrategiarekin lotuta, teknologia abiadura izugarrian aldatzen ari den ingurunean, IDEKOk euskarri duen eta aurrera egitea ahalbidetzen dion aliantza- eta lankidetzaren mapa bat du.

Elgoibarren kokatuta dago eta 110 langile ditu, horietatik %30 doktoreak dira eta beste %7a doktoretza egiten dabil. Bi eraikinetan garatzen du jarduera eta horietan daude 2.000 m²-tik gorako prototipo-lantegia eta hainbat laborategi: doitasunezko ingeniartzakoa, prestazio handiko dinamikakoa, material konposatuena, laser bidezko prozesatuena, CNC eta fabrika digitaleko laborategia.

Teknologia aurreratuak enpresetara transferitzea eta industriaren lehiakortasuna indartzea helburu hartuta, teknologia digitalak eta doitasun handiko Digital Grinding Innovation Hub (DGIH) zuzenketa-soluzioak garatzera bideratutako gune berri bat du teknologia-zentroak, Euskadiko nodo berria, digitalizazio eta artezketa industrialaren arloko soluzio berritzaileak ikertzeko eta garatzeko.


Ikerketaren eta berrikuntzaren arteko uztarketa orekatuari esker, I+G+B jarduerari modu iraunkorrean eutsi eta enpresek eskatzen duten balioa eranstean die. 2019an, zentroak hamar milioi euro inguruko diru-sarrerak izan zituen, horietatik %42 kontratupeko proiektuei dagozkie eta gainerako %58a ikerketa-proiektuen ondorio dira.



DATU EKONOMIKO AIPAGARRIAK


AURREKONTUAREN BILAKAERA UNIBERTSITATEAN

DIRU-SARREREN AURREKONTUA




LANGILEEN BILAKAERA UNIBERTSITATEAN

PERTSONALA + BEKADUNAK





INBERTSIOEN BILAKAERA UNIBERTSITATEAN



ORGANO SOZIALAK ETA ZUZENDARITZAKOAK

ERREKTORE KONTSEILUKO KIDEAK

Presidentea:

Mikel Alvarez jn.

Presidenteordea:

M^a Asun Sarrionandia and.

Idazkaria:

Amaia Pavón and.

Kideak:

Amaia Agirre and.

Aitor Bediaga jn.

Josetxo de Frutos jn.

Zigor Ezpeleta jn.

Juan María Palencia jn.

Enrique Zarate jn.

Jon Aldazabal jn. (2018)

Miren Erdozia and. (2018)

Ainhoa Fernández and. (2018)

Raúl García and. (2018)

Idoia Irazabal and. (2018)

Mikel Mendikute jn. (2018)

Igor Ortega jn. (2018)

María Ubarretxena and. (2018)

Juan Jesús Alberdi jn. (2019)

Maite Antón and. (2019)

Itsaso Buruaga and. (2019)

Lander Díaz de Gereñu jn. (2019)

Eñaut Muxika jn. (2019)

Oihana Otaduy and. (2019)

Aritz Otxandiano jn. (2019)

Silbia Sarasola and. (2019)

ZUZENDARITZA BATZORDEKO KIDEAK

Presidentea:

D. Mikel Alvarez

Errektorea:

D. Vicente Atxa

Errektoreorde Akademikoa:

D. Jon Altuna

Fakultateetako Zuzendari eta Dekanoak:

D. Carlos García

Escuela Politécnica Superior

D. Lander Beloki

Enpresagintza Fakultatea

D.^a Begoña Pedrosa

Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación

D. Joxe Mari Aizega

Facultad de Ciencias Gastronómicas -Basque Culinary Center

Secretaria General y Directora Financiera

D.^a Idoia Peñacobá



Loramendi, 4
20500 ARRASATE-MONDRAGÓN
Tel. 943 71 21 85

info@mondragon.edu

www.mondragon.edu

ENTITATE LAGUNTZAILEA

